

GIL 86 Sobroneko ur termalak



Soportillako iturburu termala.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42° 45' 54,83" N

Long.: 3° 5' 36,38" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 492.354,92 m

Y: 4.734.748,71 m



Nola iritsi

Sobrón eta Soportillako iturburuak Ebro ibaira isurtzen dute ura, Sobron udalerritik gertu, Gasteiztik 50 bat km mendebaldera, Fontecha eta Trespaderne lotzen dituen A-4324 errepidean. Lehena, antzina "Osasunaren iturburu" izenez ere ezagutzen zena, Ebro ibaiaren ezkerreko ertzean dago, Sobrón udalerraren lurretan (Arabán). Bestea, berriz, eskuineko ertzean dago, eta Villanueva udalerrari dagokio (Burgos).

Erraz irits daiteke Sobróneko iturburura, oinez, hotel abandonatu handi baten eskeletoaren alboko aparkalekutik. Handik, Ebro ibaia gurutzatzen duen zubia eskuinean utzi, eta 40 m aurrera jarraitu behar da, hotelaren eskeletorantz, ezkerrean leize bat ikusi arte. 1,5 m zabal eta 1,80 m garai da leizea, gutxi gorabehera, eta handik sortzen da ur termala (urteko batez besteko emaria: 8 L/s).

Soportillako iturburura iristeko, berriz, gurutzatu egin behar da aipatutako zubia. Ibaia-
ren beste aldera iristeaz bat, XIX. mendeko burdin sare batzuk ikusten dira ezkerrean. Leize txiki bat babesten dute; hartantxe dago iturburua (urteko batez besteko emaria: > 8 L/s).

GILaren deskribapen laburra

Sobrón eta Soportillako iturburuak multzo bereko ur termala ematen dute (19 °C), sodio bikarbonatoduna. 1859an, ur horiek hartzera hurbiltzen ziren gaixo ugarietara ostaturatuta eskaintzeko, etxe txiki bat eraiki zuten iturburuaren ondoan. Ondorengo urteetan jende-oldea handitu zenez, beste etxe bat eraiki behar izan zuten aurrekoaren ondoan. 1879an, 110 gelako eraikin bat egin zuten aurrekoen jarraian, baina hura ere ez zen nahikoa izan, eta hotel bat eraiki zuten orain hotel berriaren eskeletoa dagoen tokian. Orduan, Sobrón eta Soportillako iturburu termalak zirela eta, bainuetxe handi bat eraiki zen, zeina “Espainiako Vichy” izenez ezagutu baitzen zenbait hamarkadatan.

Valderejo-Sobrón ur-masakoak dira bi iturburuak; zehazki, Sobrón azpiunitatekoak. Sobróneko antiklinala osatzen duten materialek definitzen dute azpiunitatea. Antiklinal horretan, hauek sartzen dira, nagusiki: konplexu urgondarreko akuiferoak, Utrillas faziesa, Cenomaniarreko kareharriak eta Coniaciarreko kareharri eta dolomiak (Subillako kareharriak).

Azpiunitatearen barruan, bereiztekoak dira, besteak beste, Sobróneko sektorea —azpiunitatearen ekialdeko erdiko akuiferoak hartzen ditu, zeinek jarraipena baitute aztertzen ari garen eremutik kanpo— eta Herrán eta Riberako sektoreak. Egitura geologikoa dela eta, akuifero horiek bata bestearekin konektatuta daude, eta ez dago erabat bereizten dituen tarte iragazkortasun txikikorik. Sektore honek 30 km² inguruko azalera du, eta 150-350 mm ingurukoa da euri erabilgarria. Tarte detritikoetan batez beste euri erabilgarriaren % 70 eta karbonatuetan % 90 infiltratzen dela jota, urteko batez besteko baliabideak 7,8 hm³-ra heltzen dira, eta batez besteko emari baliokidea 250 L/s da.

Behatzeko punturik onena

In situ.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 46, GIL 72.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 84.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa				●
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafiko/Sedimentologikoa				
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean ●	Potentziala	Martxan
Interes kulturala: Jarduera termal garrantzitsua sortu zen Sobrónen ur termalei esker.					
Oharrak:					

Bibliografia espezifikoa

- Hernández Sanz, J. M. (1885): *El Vichy Español*. Establecimiento Termal de Sobrón y Soportilla (Álava-Burgos).
- EEE (1996): *Euskal Autonomia Erkidegoko mapa hidrogeologikoa*, 1:100.000 eskalakoa.